

25/12

irizpena

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte fitxaren eredua eta gizarte diagnosikoaren tresna onetsiko dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2012ko urriaren 24an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena

25/12

I.- SARRERA

2012ko urriaren 3an Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordean Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren idazki bat sartu zen. Idazki horretan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte fitxaren eredia eta gizarte diagnostikoaren tresna onetsiko dituen dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatu zuen, Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Irizpena eskatu den dekretu-proiektuaren helburua gizarte fitxaren eredia eta gizarte diagnostikoa egiteko tresna onestea da, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 20. artikuluan aipatuak.

25/12j

Berehala dokumentuaren kopia bidali zitzaien Kontseiluko osoko bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritziak bidaltzeko, eta beraien berri emateko lan batzorde egokiari, Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordearen Araudian ezarritakoaren arabera.

Gizarte Garapeneko Batzordea 2012ko urriaren 22an batzartu zen, irizpenaren aurreproiektuko lehenengo proposamena eztabaidatzeko asmoz. Egun berean, batzordeak ondoko irizpen proiektu hau onetsi zuen, Euskal EGABen osoko bilkuran 2012ko urriaren 24an aurkeztu zena. Aho batez onetsi zen.

II.- EDUKIA

Dekretu-proiektuari buruzko testuak zioen azalpena, 4 artikulua, azken xedapen 1 eta 2 eranskin dauzka. Lehena gizarte fitxaren ereduari buruzkoa da eta bigarrena gizarte diagnostikoaren tresnari buruzkoa.

ZIOEN AZALPENA

Zioen azalpenean azaltzen da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari esku hartzeko oinarritzko prozedurari buruz ondokoa xedatzen duela Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 19.1 artikulua: profesionalek, beren lana egiten ari direnean, ikusten badute jarraipen bat behar duen

esku hartzea egin behar dutela, jarduketa prozedura bat hasi beharko dute. Prozedura horren ondorioz, diagnostiko bat egingo dute eta, diagnostikoak hala aholkatzen badu, arreta pertsonalizatuko plan bat egin beharko dute, plan horretan ageri diren neurriak abian jartzen lagundu (prestazioak eta zerbitzuak barne), eta jarraipena eta ebaluazioa egin.

Bestalde, legearen 20. artikulua, oinarrizko tresna komunak arautzen dituenean, azaltzen du gizarte zerbitzuetako esku hartze irizpideetan homogeneotasuna bermatze aldera euskal administrazio publikoek balorazio eta diagnostiko tresna komunak aplikatuko dituztela.

25/12*i*

Azalpenean, gero, adierazten da artikulua horren hirugarren puntuaren arabera Eusko Jaurlaritzak tresna komun horiek arautu behar dituela, arauzko izaerarekin, beste euskal administrazio publikoekin (foru nahiz udal izaerakoak) koordinatzeko daukan eskumenak betez. Eta, horretan oinarrituta, dekretu honen bidez Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte fitxaren eredia eta gizarte diagnostikoaren tresna onetsi dira.

XEDAPEN GORPUTZA

1. artikuluan dekretu honen **xedea eta helburua** aurkeztu dira. Azaltzen denez, dekretuaren xedea gizarte fitxaren eredia eta gizarte diagnostikoa egiteko tresna onestea da, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 20. artikuluan ageri diren bezala.

Biak, gizarte fitxa eta diagnostikoa, euskal administrazio publikoen tresna tekniko komunak dira, gizarte zerbitzuen esku hartze irizpideen homogeneotasuna bermatzeko helburuarekin.

2. artikulua **gizarte fitxa** aurkeztzen du. Fitxa hau banakako izaera duen euskarri dokumental edo elektronikoa da. Beraren bidez, oinarrizko gizarte zerbitzuek Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen oinarrizko datuak biltzen eta erregistratzen dituzte; horrez gain, erabiltzaile bakoitzak oinarrizko gizarte zerbitzuetara jotzeko daukan arazoia jasotzen du, sistemaren jarduteko eremu orokorrak kontuan izanik.

3. artikuluak gizarte diagnostikoa aurkezten du. Diagnostiko horretan gizarte zerbitzuen euskal sistemaren arreta eskatzen duten pertsonen gizarte premien deskribapena eta balorazio profesionala da.

Hasierako balorazioa egin ondoren gizarte langileak jarraipena behar duen esku hartzea egin beharra ikusten duen guztietan egin beharko da diagnostikoa.

Oinarrizko gizarte zerbitzuek premien hasierako balorazioa eta hasierako diagnostikoa egin behar dituztela azaltzen da.

Udal gizarte zerbitzuek intentsitate handiagoko esku hartze bat egiteko edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuetara bideratzeko, udaleko gizarte zerbitzuek sakontasun gehiago eskatzen duten gizarte diagnostikoak egingo dituzte. Sakoneko diagnostiko hau kontuan izan behar dute bigarren mailako arretako diagnostiko zerbitzuek.

Foru gizarte zerbitzuei edo bigarren mailako arreta zerbitzuei mendetasunaren balorazioa eta diagnostikoa, ezintasuna, bazterketa eta babesgabezia (diagnostiko espezializatua) dagozkie, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 22. artikulua agintzen duenez.

4. artikuluak dio Eusko Jaurlaritzak, gizarte zerbitzuetan eskumena duen sailaren bidez, foru eta udal mailetako euskal administrazio publikoei gizarte fitxa eta gizarte diagnostikoa egiteko behar den **aplikazio informatiko komuna** emango dizkiela.

Azken Xedadepna dekretua indarrean sartzeari buruzkoa da.

1. Eranskinak gizarte fitxaren eredua jasotzen du:

- Datu pertsonalak
- Pertsonaren oinarrizko gizarte eta biografi identifikazioa
- Erroldatzea
- Arretaren zioa eta balorazio profesionala
- Elkarreragineko eta komunikazioko gaitasunak

2. Eranskinak gizarte diagnostikoaren tresna jasotzen du.

Lehenik eta behin GIZARTE DIAGNOSTIKOAREN EREDU OROKORRA aurkezten da. Aipatzen da Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera sistemak betebeharrak hau daukala: banakako, familiako eta taldeko prozesu edo ibilbideetan eragina duten harreman-premiak estaltzen direla bermatzea, haren prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonak, herritar diren aldetik, sistemak ezartzen dituen eskubideak gauzatu ahal izateko. Lege berak, 19. artikuluan, azaltzen du oinarrizko prozedura zertan datzan. Haren faseetan ondokoak ezartzen dira:

25/12*j*

- Oinarrizko edo udaleko gizarte zerbitzuek (edo, beharrezkoa denean, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuek, premiazko arreta eman behar denean) pertsona hartzea.
- Erabiltzaileak gizarte zerbitzuetara jotzeko duen arrazoia jasotzea.
- Egoeraren gizarte diagnostikoa. Oinarrizko edo udaleko gizarte zerbitzuek (edo, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuek, premiazko arreta eman behar denean) egin behar dute. Bi diagnostiko mota daude: hasierako diagnostikoa eta sakoneko diagnostikoa. Bigarren diagnostiko hori udaleko gizarte zerbitzuek egingo dute, baldin eta uste badute egin beharreko esku hartzeak hala eskatzen duela, edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuetara bideratzea erabakitzen badute.
- Arreta pertsonalizatuko plana, erabiltzaileak onartua.
- Arreta plan pertsonalizatuan sartutako neurrien multzoari jarraipena egitea.
- Efektuen emaitzaren eta esku hartzearen inpaktuaren ebaluazioa.

Gizarte diagnostikoaren ereduak sakoneko diagnostikoa egitea ahalbideratzen du, bizitzako eremuetan banatutako zenbait adierazle erabiliz. Adierazle horiek gizarte zerbitzuen sisteman (oinarrizko gizarte zerbitzuetatik, bigarren mailako zerbitzuen lan espezializaturaino) arreta eman behar zaion kasuistika mota oro jasotzen dute.

Bigarrenik, GIZARTE FITXA aurkezten da, eta azaltzen da gizarte diagnostikoko eredu horretan gizarte fitxa osatzen duten adierazleak sartzen direla. Gizarte fitxak hiru zati nagusi ditu:

1. Erabiltzaileen gizarte eta biografi datuen inguruko adierazleak.
2. Erabiltzaileak oinarrizko gizarte zerbitzuetara jotzeko arrazoia jasotzen duten aldagaiak, sistemaren oinarrizko jardun-eremuak kontuan izanik:
 - Gizarte zerbitzuen sistemaren zerbitzuei eta prestazioei buruzko informazioa jasotzeko.
 - Gizarte babeseko beste sistema batzuen zerbitzuei eta prestazioei buruzko informazioa jasotzeko.
 - Mendetasunari arreta ematearen inguruko gaiei buruz.
 - Babesgabeziaren inguruko gaiei buruz.
 - Gizarte bazterkatzen inguruko gaiei buruz.
 - Bizirauteko bitartekoen inguruko gaiei buruz.
 - Gizarte parte hartzearen inguruko gaiei buruz.
3. Oinarrizko gizarte langileak egiten duen gizarte balorazioa, arestian aipatutako arretako oinarrizko eremuak kontuan izanik. Horri erabiltzailearen gizarte gaitasun eta trebetasunen lehenbiziko balorazioa gehituko zaie, gizarte diagnostikoaren ereduaren adierazleetan jasoak

25/12*i*

Hirugarrenik DIAGNOSTIKOEN KATEGORIAK aurkezten dira. Horrela, gizarte arreta aztertu ondoren, diagnostiko-ondorio batzuk aterako dira. Horiek azalduko dute egoera hauetakoren bat den:

- Gizarte egoera egokia
- Ahultasuneko edo arriskuko gizarte egoera
- Gizarte egoera txarra

Pertsona bat zein egoeratan dagoen zehaztu ahal izateko guztira 171 adierazle ematen dira. Dimentsiotan ordenatuta daude, eta era berean 5 eremu nagusitan antolatuta: **ekonomikoa, bizikidetzakoa, pertsonala, osasunekoa** eta **soziala**.

Ondoko taula honetan adierazle horien zerrenda aurkezten da. Haietako bakoitzaren ezkerrean sakoneko diagnostiko ereduaren barruan duen hurrenkera-zenbakia ageri da. Eredu honetan bi diagnostiko mota bereizten dira: hasierakoa, eta aipatu dugun sakoneko diagnostikoa.

EKONOMIKOA

1. Dimentsioa. Egoera ekonomikoa

- 1.1. Pertsonak diru-sarrerak edukitzea.
- 1.1.a Bizikidetzeta-taldeak diru-sarrerak edukitzea.
- 1.2. Pertsonaren edo bizikidetzeta-taldearen diru-sarreraren zenbatekoa nahikoa izatea.
- 1.3. Diru-sarreraren iturria – gizarte babes formala.
- 1.4. Diru-sarreraren iturria – familiako eta familiakoa ez den lehen mailako sarearen babes materiala.
- 1.5. Alojamentu eta etxebizitza oinarrizko ondasunerako gastuak.
- 1.5.a. Alojamentu-etxebizitza gastuaren zenbatekoa.
- 1.6. Oinarrizko beste ondasun eta zerbitzu batzuetako gastuak.
- 1.7. Oinarrizkoak ez diren ondasun eta zerbitzuetako gastuak.

2. Dimentsioa. Okupazio-lan egoera

- 2.1. Lan merkatuan eta lan jardueran daukan egoera.
- 2.A.1 Lan jarduera.
- 2.A.2 Laneko baldintzak.
- 2.A.3 Laneko egonkortasuna.
- 2.A.4 Lansaioaren iraupena.
- 2.B.1 Lana bilatzearen inguruko egoera.
- 2.B.2 Langabetuak: profilak eta lan merkatuaren eskaera.
- 3.1. Erroldatzea.
- 3.1.a. Erroldatzea.
- 3.2. Egoitzarako baimena, atzerritarra.
- 3.3. Lanerako baimena, atzerritarra.
- 3.4. Atzerritarra identifikatzeko txartela edo bisatua edukitzea.

Zeharkako dimentsioa: egoera juridiko eta administratiboa

- T.1. Gizarte segurtasunaren osasun arreta.
- T.2. Gizarte segurantzaren prestazio ekonomikoak.
- T.3. Diru-sarrerak bermatzeko errenta.

- T.4. Gizarte zerbitzuak.
- T.5. Doako justizia.

BIZIKIDETZAKOA

4. Dimentsioa. Alojamentuko eta etxebizitzako egoera

- 4.1. Alojamentuko egoera.
 - 4.A.1. Etxebizitzan bizi direnak.
 - 4.A.2. Etxebizitzaren edukitze araubidea.
 - 4.A.3. Etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak.
 - 4.A.4. Arkitekturako oztopoak.
 - 4.A.5. Etxebizitzaren ekipamendua.
 - 4.A.6. Hornidurak.
 - 4.B.1. Famili etxebizitza edo alojamentu partikularra edukitzea.
 - 4.B.2. Etxebizitzaren edo alojamentuaren bizigarritasun baldintzak.
 - 4.C.1. Kalean lo egitea, kaleko egoeran.
 - 4.C.2. Lurralde mugikortasuna, kaleko egoeran.
 - 4.C.3. Infraetxeko alojamentu egoera.
 - 4.C.4. Alojamentua galtzearen ondoriozko egoera, bat-batekoa edo iragarria.
- 4.2. Alojamentu egoeraren egonkortasuna.
 - 4.2. Etxebizitza edo alojamentu partikular edo familiarrean eta instituzionala ez den alojamentu kolektiboan bizi direnak.
 - 4.2. Alojamentu kolektibo instituzionalean bizi diren pertsonak.
 - 4.2. Alojamenturik gabeko pertsonak.
 - 4.3. Ohiko bizilekuaren eta alojamentuaren komunitate-esparrua.
 - 4.3.1. Oinarrizko zerbitzuak eskuratzea.
 - 4.3.2. Kokapena, zona, auzoak.
 - 4.3.3. Irisgarritasuna, oztopoak.

25/12*i*

5. Dimentsioa. Harremanak, loturak eta gizarte babesa jasotzea bizikidetza pertsonalerako, familiarerako eta lehen eta bigarren mailetako sareetarako

- 5.1. Harreman eta lotura afektiboak edukitzea.
- 5.2. Gizarte babesa jasotzea.

- 5.3. Lehen mailako sareak, familiarrak edota ez, gizarte babesa ematen dutenak.
- 5.4. Bigarren mailako sareak, komunitarioak, gizarte babesa ematen dutenak.
- 5.5. Bigarren mailako sareak, instituzionalak, jasotzen duen gizarte babesa ematen dutenak.

6. Dimentsioa. Harreman-egoera bizikidetzaren eremuan, eremu pertsonalean eta familian

- 6.1. Harreman-egoera bizikidetzaren eremuan.
- 6.1. Lotura familiarra edota afektiboa eta bizikidetzakoa daukan bizikidetzat-taldearentzat.
- 6.1. Bizikidetzat instituzionaleko edo establezimendu kolektiboko taldearentzat.
- 6.1. Alojamenturik gabeko pertsonentzat.
- 6.1.1 Famili funtzionamenduaren egoera.
- 6.2. Bizikideak ez diren senideekiko harremanen egoera.
- 6.3. Auzokideekiko harremanen egoera.
- 6.4. Bizikidetzat pertsonal eta familiarreko harremanen historia.

7. Dimentsioa. Eguneroko bizitzaren antolaketa

- 7.A.1. Eguneroko bizitzaren antolaketa pertsona mantentzeko eta zaintzeko.
- 7.A.1.1. Elikadurarako antolaketa.
- 7.A.1.2. Higiene pertsonalean eta familiarrean antolaketa.
- 7.A.2. Eguneroko bizitzaren antolaketa familiarren eta haren kideen mantentzeko eta ongizaterako.
- 7.A.2.1. Etxebizitzaren higienaren antolaketa.
- 7.A.2.2. Administrazio ekonomikoaren antolaketa.
- 7.A.2.3. Etxeko lanen banaketaren antolaketa.
- 7.A.3. Etxeko pertsonak zaintzeko eguneroko bizitzaren antolaketa.
- 7.A.3.1. Kide ahulei arreta eta hezkuntza emateko antolaketa.
- 7.A.3.2. Famili erantzukizunen zamaren banaketaren antolaketa.
- 7.B.1. Norbere burua zaintzeko eguneroko bizitzaren antolaketa.

- 7.B.1.1. Elikadurarako antolaketa.
- 7.B.1.2. Higiene pertsonalerako antolaketa.
- 7.B.1.3. Osasunerako zaintzen antolaketa.
- 7.B.2. Administrazio ekonomikoaren antolaketa.
- 7.B.3. Etxebizitzaren higienearen antolaketa.

8. Dimentsioa. Bizikidetzako harremanak bizikidetzaren beste testuinguru batzuetan

- 8.1. Eskolako bizikidetzako harremanak.
- 8.2. Laneko bizikidetzako harremanak.
- 8.3. Bizikidetzako harremanak prestakuntzako eta lan-kualifikazioko beste testuinguru batzuetan.
- 8.4. Eguneko egonaldiko gizarte zerbitzuetako bizikidetzaharremanak.

25/12j

Zeharkako dimentsioa: juridikoa eta administratiboa

- T.6. Etxebizitza duina eta egokia edukitzeko oinarrizko gizarte eskubidearen inguruko egoera.
- T.7. Elikagaietarako eskubidearen inguruko egoera senideen artean.
- T.8. Adindunen ezintasun adierazpena.
- T.9. Zaintza eta babeserako adostutako babes figurak.
- T.10. Babes funtzioak betetzea.
- T.11. Adingabekoen babesa.
- T.12. Etxeko indarkeriaren biktimen babesa.
- T.13. Banantzea edo dibortzioa.
- T.14. Seme-alaben zaintza.
- T.15. Bi gurasoekin harremanak izateko eskubidea.
- T.16. Adingabeko seme-alabekin guraso ahalgoa gauzatzea.

9. Dimentsioa. Gizarte gaitasun eta trebetasunak

- 9.A.1. Elkarreragineko eta komunikazioko oinarrizko gaitasunak.
- 9.A.2. Asertibotasuna.

- 9.A.3. Sentimenduak adieraztea.
- 9.A.4. Erasoaren alternatibak erabiltzeko trebetasunak: gatazken konponketa.
- 9.B.1. Oinarrizko trebetasun kognitiboak.
- 9.B.2. Laguntza eskatzeko eta aholkuak onartzeko gaitasuna.
- 9.B.3. Gertakizunak aurreikusteko eta aurreikuspenak egiteko gaitasuna.
- 9.B.4. Dauden laguntza eta baliabideak ebaluatzeko trebetasunak.
- 9.B.5. Bulkadak bideratzea eta autokontrola.
- 9.C.1. Lagunak egiteko trebetasunak.
- 9.C.2. Lagunak mantentzeko trebetasunak.
- 9.C.3. Komunitate-baliabideak erabiltzeko trebetasunak.
- 9.C.4. Osasun-preskripzioak betetzeko trebetasunak.
- 9.C.5. Komunitate-bizitzan parte hartzeko eta antolatzen trebetasunak.
- 9.C.6. Aisialdia antolatzen trebetasunak.
- 9.D.1. Norberaren burua zaintzeko trebetasunak (higienea, arropa, sendagaiak, etab).
- 9.D.2. Beste pertsona batzuekin bizitzeko trebetasunak.
- 9.D.3. Erabakiak modu autonomoan hartzeko trebetasunak.
- 9.D.4. Bizitzako krisialdiei aurre egiteko trebetasunak.
- 9.D.5. Bizileku bat aurkitzeko trebetasunak.
- 9.D.6. Lanpostu bat bilatzeko trebetasunak.
- 9.D.7. Lanpostu bat mantentzeko trebetasunak.

10. Dimentsioa. Hezkuntza. Prestakuntza – informazioa - gaitasuna

- 10.1. Amaitutako ikasketa maila.
- 10.2. Egiten ari den prestakuntza.
- 10.2. Nahitaez eskolatzen dauden adingabekoen eskolatuzea (6-16 urte): eskolatuzea.
- 10.2.a. Eskolako errendimendua.
- 10.2. Egiten ari den prestakuntza: lan jarduerako adina (16-65 urte): okupazioa.
- 10.3. Hizkuntzak.
- 10.4. Interneten erabilera.

- 10.5. Informatika erabiltzaile mailan jakitea eta erabiltzea.
- 10.6. Gizarte eta kultur errealitatearen informazioa.
- 10.7. Gizarte eskubideen eta gizarte babeseko sistemen informazioa.
- 10.8. Gizarte parte hartzeko zerbitzuen eta baliabideen gaineko informazioa.
- 10.A.1. Lan-merkatuan sartzeko prestakuntza akademikoa.
- 10.A.2. Laneko esperientzia.
- 10.A.3. Kualifikazioa.
- 10.A.4. Lanerako motibazioa.

11. Dimentsioa. Bizitzako dinamismoak

25/12j

- 11.1. Autoestima – autokonfiantza.
- 11.2. Aldartea.
- 11.3. Motibazioa – bizitzaren zentzua.
- 11.4. Erantzukizunak betetzea.
- 11.5. Erresilientziako funtsezko jarrerak.
- 11.5.1. Jarrera optimista.
- 11.5.2. Onarpen jarrera.
- 11.5.3. Konponbideak bilatzeko jarrera .
- 11.6. Harreman-egoeraren pertzepzio subjektiboa.

12. Dimentsioa. Aldaketarako prest egotea – babes sistemen erabilerak

- 12.1. Laguntza eskatzea.
- 12.2. Bizi duen egoeraz jabetzea.
- 12.3. Aldaketarako motibazioa.
- 12.4. Bigarren mailako sareengandik behar duen gizarte babesa.
- 12.5. Gizarte baliabideen erabilera (zehaztu).

Zeharkako dimentsioa. Bizitzako eremu pertsonaleko egoera juridikoa

- T.00.A. Atzerriko naziotasuna ez dutenak: NAN edo pasaportearen edukitzea.
- T.00.B. Atzerriko naziotasuna dutenak: pasaportearen, edo nortasun, jatorri eta naziotasun zantzuaren edo frogak dituzten bestelako

- agiriak edukitzea.
- T.003.a. Pertsonen sexuari buruzko aipamena erregistroan zuzentzea (erregistro zibila).

OSASUNEKOA

13. Dimentsioa. Osasun egoera

- 13.1. Gaur egungo osasun egoera.
- 13.2. Osasun arretaren premia.
- 13.3. Tratamenduen premia.
- 13.3.a. Agindutako tratamenduaren jarraipena.
- 13.A.1. Osasun fisikoaren egoera.
- 13.A.2. Aurreko urtean, ospitaleratzeen aurrekariak eta osasun fisikorako tratamendua.
- 13.B.1. Tratamendu psikiatrikoa behar duen patologia edo nahasmen mentala.
- 13.B.1.a. Larritasunaren adierazpenak.
- 13.B.2. Ospitaleratze eta tratamendu psikiatrikoen aurrekariak aurreko urtean.
- 13.B.3. Bizitza osoan izandako ospitaleratze eta tratamendu psikiatrikoen aurrekariak.
- 13.C.1. Droga mendetasunak /adikzioak.
- 13.C.2. Droga mendetasunen / adikzioen historia.
- 13.C.3. Mendetasuna kentzeko tratamenduen historia.

14. Dimentsioa. Ezintasuneko eta lanerako ezintasuneko egoera

- 14.1. Ezintasun egoera.
- 14.2. Lanerako ezintasun egoera.
- 15.1. Autonomia – mendetasuna, hirugarren pertsonen arreta premia.
- 15.2. Mendetasun gradua eta maila.

4. Zeharkako dimentsioa. Egoera juridiko eta administratiboa

- T.17. Ezindutako pertsonaren egoeraren eskubideen inguruko egoera.
- T.18. Mendetasun eskubideen inguruko egoera

SOZIALA

16. Dimentsioa. Gizarte onarpena eta eguneroko bizikidetza komunitarioa

- 16.1. Eguneroko bizikidetza komunitarioa.
- 16.2. Gizarte onarpena eta estigmatizazioa komunitatean.

17. Dimentsioa. Gizarte eta arau ingurunera egokitzea

25/12j

- 17.1. Jokabideak egokitzearen egoera.
- 17.2. Gizarte eta arau ingurunearekiko harremanen historia.

18. Dimentsioa. Gizarte harremanak edukitzea eta gizartean parte hartzea

- 18.1. Gaur egun, eta orain dela urte betetik hona, gizarte harremanak eta gizarte bizitza garatzeko jarduerak egitea.
- 18.2. Azken 3 urteetan gizarte harremanak eta gizarte bizitza garatzeko jarduerak egitea.
- 18.3. Gaur egun, eta orain dela urte betetik hona, gizarte harremanen eta gizarte bizitzaren jarduera formalak egitea.
- 18.4. Parte hartzea eta gizarte harremanak gizarte babesia emanez.
- 18.5. Parte hartzea eta gizarte harremanak gizarte sare informaletan.
- 18.6. Komunitatean errotzea.
- 18.7. Gizarte harremanen eta gizarte bizitzaren oinarritzko premiaren asebetetze egoera.

5. Zeharkako dimentsioa. Juridiko eta administratiboa

- T.19 Erantzukizun penala.

Hasierako diagnostikoa ereduaren aukeratutako adierazleetako batzuen gaineko informazioa jasotzean datza. Adierazle horiek ondoko arloei lotuta daude

- Babes sistemari lotutako informazioa.
- Bizikidetzaren pertsonala
- Familiako bizikidetzaren
- Gizarte bizikidetzaren
- Biziraupen bitartekoak

Sakontasuneko diagnostikoak, ordea, lehen aipatutako bizi-eremu guztietan antolatzen ditu adierazleak.

25/12j

Azaltzen da terminologiaren eta bateratutako irizpideen eskuliburu bat egin dela, beste dokumentu batean, eta 2011. urtean eredia aurkezteko jardunaldietan parte hartu zuten pertsonak ekarpenak aurkezteko aukera izan zutela.

Laugarrenik DIAGNOSTIKO EREDUAREN ADIERAZLEEN BALIOAK aurkezten dira. Adierazle bakoitzak aukerazko zenbait erantzun eskaintzen ditu, 0 eta 2 artean puntuatzen direnak. Zenbakiaren balioak pertsonaren posizio soziala adierazten du, adierazlea dagokion gaiari buruz. Kasu bakoitzean pertsona posizio hauetako batean egon daiteke:

- Gizarte egoera egokia _____ 0 balioa
- Ahultasuneko edo arriskuko gizarte egoera _____ 1 balioa
- Gizarte egoera txarra _____ 2 balioa

Gainera, adierazleetako askotan, aukerak beste aukera-sorta batean zehazten dira. Horiek, ahal bada, jasotako informazioa ñabartzeko bide emango dute. Puntuazioen bigarren maila bat da, ereduaren garapenean erabilgarria izango dena.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 19.1 artikulua xedatzen du profesionalak, beren lana egiten ari direnean, ikusten badute jarraipen bat behar duen esku hartzea egin behar dutela, jarduketa prozedura bat hasi beharko dutela. Prozedura horren ondorioz, diagnostiko bat egingo dute eta, diagnostikoak hala aholkatzen badu, arreta pertsonalizatuko plan bat egin beharko dute, plan horretan ageri diren neurriak abian jartzen lagundu (prestazioak eta zerbitzuak barne), eta jarraipena eta ebaluazioa egin.

Bestalde, 20. artikulua azaltzen du gizarte zerbitzuen esku hartzeko irizpideak bateratzen direla bermatze aldera euskal administrazio publikoek balorazioko eta diagnostikoko tresna komunak aplikatuko dituztela, eta Eusko Jaurlaritzak tresna komun horiek arautuko dituela, arauzko izaeraz, gainerako euskal administrazio publikoekin (foru eremukoak nahiz udal eremukoak) koordinatzeko dauzkan eskumenak betez.

25/12*i*

Ondorioz, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen eskaera eta administrazio publikoek Euskadik dauzkaten hiru eremuen (autonomi, foru eta udal eremuen) arteko banaketaren egitura kontuan izanik, hiru eremu horiek gai honetan egiten dituzten esku hartzeak zehatz-mehatz koordinatu behar baitira legearen 20. artikulua planteatzen duena (*esku hartze irizpideen homogeneotasuna bermatzea*) gauzatu ahal izateko, batzorde honek balorazio positiboa egiten du gizarte fitxaren eredia eta gizarte diagnostikoa egiteko tresna arauzko izaerarekin arautzeko ekimenaz.

Halere, auzi hauek daude:

- Lehena da, gure ustez, komenigarria dela gogoeta egitea honelako lan tresnak dekretu baten bidez arautu beharri buruz. Izan ere, agian malguagoa litzateke agindu baten formula: tresnen erabilera hobekuntzarik atzemanaz gero, aldaketak azkarrago egingo lirateke, Gobernu Kontseiluak irizpena edo onespena eman beharrik gabe.

- Bigarrenik, arau honek eduki teknikoa dauka. Arauak, adierazle ugariren bidez, banakako gizarte egoeren kasuistika antolatu nahi du, erakunde publikoek kasu horiek tratatzeko eta kudeatzeko orduan.

Adierazle asko aplikatzen dira. Gainera, adierazle horiek aukerazko erantzun eta intentsitate maila ugari dituzte. Horregatik, adierazle horiek kodetzerakoan zehaztasun handia behar da. Horren ondorio kaltegarri bat da, denboraren joanarekin, hasieran kausei, egoerei eta diagnostikoari buruz jasotako informazio asko ez dela eguneratuko. Izan dezagun kontuan 2. artikulua “gizarte fitxari” buruz azaltzen duen arauketaren xehetasuna, “lehen mailako, bigarren mailako edo erantzukizun autonomikoko gizarte zerbitzuek esku hartzen duten denboraldi osoan indarrean egongo dela. Eta gizarte fitxa berria bakarrik egingo dela baldin eta “Azken esku hartzetik bi urte igaroz gero...”

Uste dugu arrisku horren berri eman behar dugula. Izan ere, gizarte diagnostikorako tresnaren erabilgarritasuna eta egokitasuna kolokan jarri gabe, baliteke honela tresna hau alferrik galtzea, baldin eta aldian behin jarraipena egitea bermatzen ez bada egoeren, pertsonen eta erantzunen faktore garrantzitsuenen bilakaeraz, hasiera-hasieratik, eta adierazleetako bakoitzean jasotako informazioa eguneratzen ez bada.

Informazioa desitxuratzea berez kaltegarria izango lirateke estatistikaren ikuspegitik, baina are larriagoa litzateke desegokitze horrek ukitutako pertsonen banakako tratamenduan eragina badu, eta lehen eta bigarren mailetako arreta zerbitzuen baliabideak eta laguntzak ematerakoan eragina badu.

Informazioa eta diagnostikoa deseguneratzeko arriskua gutxitzeko eta galarazteko, lehen eta bigarren mailetako arreta zerbitzuen esku hartzeko “dinamikari” buruzko atal bana falta dela uste dugu, informazioaren, balorazioaren eta diagnostikoaren denbora-tarteak eta “berrikuspen/eguneratze” epeak zehaztuz, tratamendu egokia moldatzeko.

- Hirugarrenik, I. eranskinaz (Gizarte fitxaren eredua), iradokitzen dugu AIZ edo pasaporte zenbakia eranstea datu pertsonalei, eta naziotasunaren atalean, “Atzerrikoa ez” jarri beharrean “Espainiarra” idaztea, lehenengoa ez baita naziotasun bat.
- Azkena, baina ez garrantzi gutxiagokoa: uste dugu batzuetan lengoia sexista erabiltzen dela, eta zuzendu beharko litzatekeela uste dugu.

IV.- ONDORIOA

Euskal EGABek uste du egokia dela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte fitxaren eredua eta gizarte diagnosikoaren tresna onetsiko dituen dekretu-proiektuari buruzko izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin.

25/12*i*

Bilbon, 2012ko urriaren 24an

OE Lehendakaria
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1848-12